

Gaia: Adikzioen Legearen Aurreproiektua.
(Testua: 2014ko uztaila).

Adikzioen Legearen Aurreproiektua entzunaldiko izapidean jaso ondoren, Aurreproiektuaren inguruko gogoeta hauek formulatu dira, horretarako zabaldutako epean.

I.- AURREKARIAK

Menpekotasunei buruzko Legeak drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legea indargabetuko du, 1/1999, 7/2004 eta 1/2011 Legeek sartutako aldaketekin. Azkeneko aldaketa abenduaren 28ko 25/2005 Legera egokitzeko egin zen, hau da, tabakismoari aurre egiteko osasun neurriei eta tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeari buruzkora egokitzeko (abenduaren 30eko 42/2010 Legeak aldatua), bai eta lege horien arauzko erregelamenduen garapenak ere.

II.- LEGE AURREPROIEKTUARI EGINDAKO GOGOETAK

Lehenengoa.- Ezarpen-eremua.

Lege Aurreproiektuaren testuak hedatu egiten du menpekotasun deitzen ditugunen arloko jarduera eremua. Substantziekiko menpekotasunez gain, substantziarik gabeko menpekotasunei edo jarrerazkoei ezarriko zaie, baita aurreko horiek sustatzen dituzten arrisku-faktoreei, substantzien kontsumo arazotsuei eta jarrerazko menpekotasunak sor ditzaketen jokabideei ere.

Substantziekiko menpekotasunak direla-eta, bete beharreko neurrien eta gauzatu beharreko jardueren garapena ez da berbera. Substantziekiko menpekotasunak gehiago nabarmendu dira; aitzitik, substantziarik gabekoak ez dira horrenbeste zehaztu, beharbada menpekotasun mota honen jarduerak oinarritzeko oinarri sendorik ez dagoelako.

Hori dela eta, gogoan izan behar da OMEk alor honetan aitortzen duen bakarra joko patologikoa edo ludopatía dela.

Era berean, ez dakigu Lege Aurreproiektu honen eremu materialean zergatik sartu eta mantendu diren nikotina aska dezaketen gailuak.

Aitzitik, kanabisaz ez da ia ezer esaten, gure inguruan eragin handia duen arren; eskubide eta betebeharrei buruzko artikuluko (5-3 art.) atal bat baino ez zaio eskaini, zehatz esateko, kanabis-kontsumitzaileen erakundeen araudiari dagokiona besterik ez, kanabisaren inguruko gertaerak ezagutzeko eta substantzia honen eratorriak legez kanpoko merkatura jo gabe lortu ahal izateko. Testuan ez da beste aipamenik egiten, eta etorkizuneko Legean tratamendu zehatza beharko luke.

Bigarrena.- Menpekotasunen prebentzioa.

Aurreproiektuak ezartzen duenez, erkidegoaren eremuko prebentzioa (16. art.) udalek garatuko dute batez ere, eta garatu beharreko jarduerak eta neurriak zehazten ditu. Indarrean dagoen 18/1998 Legeak, gai honi dagokionez, (4. art.) prebentzio arloko jardueren oinarritzko lerroak ezartzen ditu, ondoren autoantolakuntza gaitasunaren arabera garatu dadin.

Indarrean dagoen Legean erabilitako formula egokiagoa da, eta, ondorioz, menpekotasunen prebentzio arloan egin beharreko jarduera jakinen inguruan ezarritakoa kendu egin behar litzateke Aurreproiektutik.

Aitzitik, eskumendun Administrazioaz ez da horrelako zehaztapenik ageri aurreikusitako neurriak abian jar ditzan alor hauetako prebentziorik: familia, hezkuntza, kirola, aisia eta denbora libre, ingurumena eta hirigintza (Euskal Herri Administrazioez ari da), eta Aurreproiektuaren artikuluetan zehaztu beharra dago horiek gauzatzeko zein den beharrezkoa.

Bestalde, 15. artikuluko (familiako prebentzioa) eta 16.eko (erkidegoko prebentzioa) edukiak nahastu egiten direla dirudi, eta tratamendu bat eskaini behar litzateke jardueraren alderdirik nagusienak ezartzeko, eskumendun Administrazioek beraien gaitasunen arabera gara dezaten.

Esan beharra dago, halaber, aztertutako testuak ez dituela aipatzen (indarrean dagoen 18/1998 Legeak 5-4. artikuluan aipatu arren) osasun arloko administrazioak osasun arloan eskaini beharreko prebentzio jarduerak (osasun sareetan integratutako informazio zerbitzua sortu eta kokatu, informazioa, aholkua eta jarraibideak emateko osasun zerbitzuetako erabiltzaileei eta osasun arloko profesionalei, droga menpekotasunen prebentziorik eta tratamenduari buruz), jarduera horiek osasun arloko administrazioak eman behar dituen arren, lehen aipaturiko 18/1998 Legeko 5-4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Alkoholdun edarien publizitatea eta sustapena.

Ezin da ulertu kasu jakin batzuetan alkoholdun edarien publizitatea galarazteko salbuespenak zergatik ezartzen diren, 20 gradu zentesimal baino gutxiagoko alkoholdun edarien kanpo publizitatea baimenduz.

Laugarrena.- Alkoholdun edarien hornikuntza eta salmenta.

Kontraesankorra dirudi 16 urtez gorakoek lana egiteko aukera aitortuta izatea eta Aurreproiektuko 32. artikuluan ezarritako muga, horren arabera adingabeek ezin baitute alkoholdun edaririk saldu edo hornitu.

Aitortu beharra dago 32. artikuluko 4. eta 6. paragrafoak sartzea egokia izan dela.

4 d) idatz-zatiari dagokionez, argiago aipatzeko eskatzen da alkoholdun edariak saldu eta hornitzeko galarazpena kultur jarduera edo ekitaldietan, hezkuntza arlokoetan, gizarte-arlokoetan eta antzekoetan (euskal eskola publikoaren jaia, ikastolena eta antzeko jarduerak).

Adingabeek alkoholdun edariak saldu eta eskura izateko aukerarik izan ez dezaten, neurriak jarri behar lirateke testuan (Alkoholdun edarien berehalako kontsumorako ez diren saltokietako erakusleihoetan 1,5-1,7 m baino gorago eduki. Alkohola saltzen den establezimenduetan horiek ezin dira kontsumitzaileak zuzenean hartzeko moduan egon, hau da, saltzaileari eskatu beharko zaio).

Droga Menpekotasunari buruz indarrean dagoen Legeak baimendu egiten du 20 gradu baino gutxiagoko alkoholdun edariak kirol instalazioetan saltzea, besteak beste. Aitzitik, Aurreproiektuko 33. artikulua erabat galarazten du alkoholdun edariak saltzea kirol instalazioetan, osasun zentroetan, zentro sozio-sanitarioetan, gizarte-zerbitzuko zentroetan, 18 urtez azpiko ikasleei zuzendutako ikastetxeetan eta bestelakoetan.

Bestalde, 32. artikuluko 5. paragrafoak 20 graduko baino gutxiagoko alkoholdun edariak saltzeko baimena ematen du herri administrazioen dependenzietan, geltokietan, aisiako espazioetan, 18 urtez gorako ikasleei zuzendutako ikastetxeetan, artikuluko horretako 4. paragrafoak erabat galarazten duenean kirol instalazioetan, osasun zentroetan, zentro sozio-sanitarioetan, gizarte-zerbitzuetako zentroetan, bide publikoan eta 18 urte azpiko ikasleei zuzendutako ikastetxeetan, besteak beste.

Bi paragrafoak kontraesankorrak izan daitezkeenez, 32. artikulua hau berriro formulatu beharko da.

Bosgarrena.- Tabakoa erretzea.

Tabakoa erretzeko muga berriak daude. Horien artean 41-2-u) artikuluan ezarritakoa aipatu behar da, adingabeak dauden ibilgailu pribatuetan erretzea galarazten baitu.

Muga honen xedea egokia den arren, oso zaila da adingabearen interes gorena eta, ondorioz, bere osasuna kontrolatzea.

Seigarrena.- Nikotina aska dezaketen gailuak.

Nikotina aska dezaketen gailuei 41. artikuluan tabakoari ezarritako galarazpen berberak ezarri zaizkie. Horri dagokionez, zalantzak daude muga horiek nikotina aska dezaketen gailuei ezartzerakoan.

Zazpigarrena.- Zerbitzu sozio-sanitarioak.

Aztertutako testuaren 55. artikulua zerbitzu batzuk zehazten ditu, hain zuzen ere, alor sozio-sanitarioan erantzukizunak dituzten administrazioek pertsonen eta hauen familiei eremu sozio-sanitarioan menpekotasunekiko eman beharreko zerbitzuak, nahiz eta gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 46. artikuluan aurreikusitako zorro sozio-sanitarioa araututa eta zehaztuta ez egon. Beraz, hor zehaztutakoaren mende egon beharko da.

Zortzigarrena.- Gizarteratzea.

Gizarteratzeari buruzko laugarren tituluak zehaztasun handiegiz azaltzen ditu gizarte-zerbitzuen eta diru-sarrerak bermatzeko alorraren jarduerak; gizarte-gaien eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Legeetan ezarritakora mugatu beharko litzateke soilik.

Zentzu horretan, esan beharra dago 59. artikuluko 2. paragrafoa desagertu egin behar dela. Zehatz esateko, gizarte-zerbitzuen alorrean Parte-hartzea eta Gizarteratzea Sustatzeko Zerbitzua behartzen du (22.1.5 art.), udal eskumenekoa izan arren, menpekotasunen fenomenoaz gizarte-pertzepzioa pixkanaka aldatzeko ekimenak sustatzera, nahiz eta beharbada hori ez izan bere egitekoa.

Era berean, 59. artikuluko 3. paragrafoa kendu behar da, GZESren markoan zerbitzuak hornitzeko eskumena duten administrazioek prestazioen kalitatea bermatzeko neurriak hartzeko betebeharra izan ez dezaten. Testu

honetan, horrek ez du zentzurik, osasun eta hezkuntza arloko prestazioen kasuan horrelakorik esaten ez bada.

Bederatzigarrena.- Informazioa.

61. artikuluko 2. paragrafoak ezartzen duenez, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen alorrean eskumenak dituzten administrazioek laguntza sareetan integratutako zerbitzuak sortzea sustatuko dute, erabiltzaileak eta euren zerbitzuetako profesionalak informatzeko, aholkatzeko eta orientatzeko menpekotasunen prebentzioari eta tratamenduari buruz. Gaur egun, 18/1998 Legeak osasun administrazioari ematen dio funtzio hori, eta hor egoten jarraitu behar duela uste dugu.

Hamargarrena.- Eskumenak.

Aurreproiektuan ezarritako eskumenen mugak eta, zehatz esateko, Aurreproiektuko seigarren tituluko 1. paragrafoan ezarritakoak, inolako zehaztasunik gabeak dira.

Testuan zehar “eskumendun herri administrazioak” aipatzen dira, eta horrek segurtasunik eza sortzen du, ez baitu zehazten zein den proposatzen den jardueraren erantzule nagusia.

Definizio gabezia hau konpon zitekeen 67, 68 eta 69. artikuluetan, euskal administrazio maila bakoitzaren eskumenei buruzkoak baitira; artikuluko horietan, zerrendak egin, eta zehatz finka zitezkeen ezarritako markoan bakoitzari zegozkion eskumenak, eta, horrela, eskumen hori bera beste administrazio publiko bati esleitzea saihestuko zen. Baina ez da horrelakorik egin.

66. artikulua ere ez du inolako zehaztasunik eskaintzen, nahiz eta Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak Lege honen garapen eta ezarpenean hartutako neurriak eta jarduera publikoak ezartzera derrigortu, gai desberdinetan dituzten eskumenen arabera (hezkuntza, kultura, gizarteratzea...). Alabaina, zehaztaper honetan osasun publikoaren arloan esleitutako eskumenez ahaztu dira, prezeptu horretan sartu behar diren arren.

Udalen eskumenei dagokienez, horri buruzko artikulua (69. art.) Aurreproiektuko gainerako artikuluetan finkatutako batzuen zatiak jaso ditu, baina udal eskumenak ez ditu gehiegi zehazten eta argitzen, tokiko araubidearen araudiak behartzen duen legez.

Aitzitik, beste berri batzuk sartzen ditu, udal eskumenen sortan sartu behar ez diren arren. Garrantzi txikiagoko batzuk, hala nola, menpekotasunen arloko sariak eta aintzatespenak kudeatzea eta bestelakoak EAEko

eskumendun organoen esku daude indarrean dagoen araudian, eta hor jarraitu behar dute, hala nola, kontrol eta zaintza funtzioek (1/2011 Legeak aldatutako 18/1998 Legeko 54.1 art.) eta tabakoaren arloko lege-hauste arinengatiko zehapenak (1/2011 Legeak aldatutako 18/1998 Legeko 54-2-b art.) jarraitu behar duten legez.

Hamaikagarrena.- Zehapen erregimena.

Testuko galarazpenak ez betetzeagatik zehapen berriak tipifikatu dira, eta udalei dagokie kontrol eta zaintza lana; ondorioz, udal jarduerak hazi egingo dira.

Honi dagokionez, gogoan izan behar da Euskadiko udalek ez dutela establezimendu publiko eta espazio pribatu guztien erabilera sistematikoki zaintzeko funtzioa esleituta; beraz, zeregin hori egiteko beharrezko bitartekorik ere ez dute. Beharrezkoa da errealitateari hobeto egokitutako ereduak pentsatzea eta autonomia-erkidegoko eskumendun organoen esku uztea kontrol eta zaintza funtzioak, zehapen espedienteak egitekoa eta zehapenak jartzekoa, eta horietara egokitzea ereduak.

Hamargarren gogoetan esan bezala, alkateek lukete tabako alorrean eta nikotina aska dezaketen gailuen alorrean arau-hauste arinak zehatzeko eskumena, gaur egun Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko lurralde ordezkariak dagokien arren 1/2011 Legeak 18/1998 Legean egindako aldaketaren arabera, eta horiek izan behar dute ahal horren titularrak abenduaren 26ko 28/2005 Legeko 22-2 artikuluan eta aipaturiko 1/2011 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

Hamabigarrena.- Aurrekontu arloko konpromisoak.

Aurreproiektuko 70. artikulua zehazten duenez, Legean aurreikusitako jarduerak gauzatzeko kredituak egon behar dira eskumendun administrazioen aurrekontuetan, aurrekontuen erabilgarritasunaren, onartzen diren programen eta horretarako sinatutako hitzarmenen arabera, Tokiko Ogasunen Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako aurreikuspenak alde batera utzita, udal eskumen berriak finantzatzeari dagokionez.

Bilbon, 2014ko irailaren 18an